

Garraiolarien lan istripuak sektorean ezartzen diren lan baldintza prekarioen ondorio dira

Aste gogorra izaten ari da langile klasearentzat. Atzo jakin izan genuen Gasteizen, Lakuan, 48 urteko langile bat altueratik erori eta zauri larrien ondorioz zendu zela. Gaur, berriz, Laudioko Guardianeko azpikontrata den Transportes Gexako 47 urteko langile bat hil da, atzo istripu larria izan ondoren, Orozkoko BP gasolindegian, karga gainera erorita.

Euskal Herrian 2021 urtea hasi denetik, gutxienez, 26 langilek bizia galdu dute lanean edo lanaren ondorioz.

Lehenik eta behin, LAB sindikatutik hildako bi langileen familia, lankide eta gertukoei gure elkartasun eta babesa adierazi nahi diegu.

Beste sektore askotan gertatzen den moduan, garraioan ere lan baldintzak gero eta prekarioagoak dira. Azpimarragarria da garraio sektorea osatzen duten garraiolari asko autonomoak direla. Gaur egun eta urteetan zehar administrazioen utzikeriak eragindako egoera dela eta, gidari nahiz garraiolarien lan baldintzak oso kaskarrak dira. Lan zama, lanaldi luzeak, kargak eta deskargak... sektoreak bizi duen egoera oso larria da.

Administrazioek beste alde batera begiratzen dute, sektoreak bizi duen egoeraren ezagun izan arren. Azpimarragarria da garraiolariak jasaten dituzten lan istripuen gehiengoak errepideetako merkantzien garraioak urte luzez pairatzen daraman prekaritatea eta desarautze basatia agerian uzten dituela. Gainera, garraiolarien eskubide eza ere nabaria da. Izan ere, lana mantendu ahal izateko, askotan kargatzaileen presak, ezinezko ordutegiak, gehiegizko pisudun kargak, prezio baxuak, lan egun luzeak eta atseden eza jasan behar dituzte.

Askotan, gainera, zamaren deskarga egitera behartuak dira. Hauek eta honelako beste hainbat arrazoi dira lana modu seguru eta duinean egitea oztopatzen dutenak, garraiolarien bizitza arriskuan jartzeaz gain. Arazo hauek dira administrazioak behin eta berriz ezkututzen saiatzen direnak, beste alde batera begiratzat gehienetan, beraien nahia garraio merkea lortzea baita, edozein preziotan.

Garraiolarien lan istripuak ez dira estatistika ofizialetan azaltzen: errepide istriputzat jotzen dira, hau ere salatu nahi dugu.

Lakuako Gobernuari langileen osasuna lehenesteko eta segurtasuna eta bizitza bermatzeko exigitzen diogu, langileon bizitza eta osasuna erdigunean jarriko dituen politika publikoak garatzea. Horretarako, egungo politiken norabidea aldatzea exigitzen diogu, lan osasun arloan, egiazko politikak bultzatu eta lanari lotu gaixotasunen benetako zergatiei ekinez. Enplegu duina eta kalitatezkoa sortzeak lehentasuna izan behar du Gasteizko Gobernuarentzat.

Politikak aldatzeko garaia da, baditugu alternatibak, borondate politikoa bakarrik falta da. Lan eta bizitza duina bermatu behar da laneko indarkeriarekin amaitzeko, lanetik bizirik eta osasuntsu itzultzeko eskubidea dugulako. LAB sindikatutik lanean eta borrokan jarraituko dugu langileen segurtasun, osasun eta bizitzaren alde.

Euskal Herrian, 2021eko ekainaren 10ean